Las sanciones de suspensión de empleo y sueldo sólo podrán imponerse por faltas muy graves o graves. La suspensión de empleo y sueldo impuesta por falta muy grave no podrá exceder de 60 días y si se impone por falta grave, no podrá ser superior a 15 días.

Las faltas leves, sólo podrán ser corregidas con expediente disciplinario.

b) Procedimiento sancionador:

Para la determinación de la mayor o menor gravedad de la falta, así como para graduar la sanción a imponer, se tendrán en cuenta los siguientes elementos:

– Intencionalidad.

- Zerbitzua asaldatzea.
- Enpresan edo erabiltzaileei eragindako kalteak.
- Hutsegitea errepikatzea.
- Partaidetza-maila.

Hutsegite oso larri eta larrien ondoriozko zigorrak ezartzeko, kontraesaneko espedientea tramitatu beharko da. Aipatutako espedientea hasi izana enpresa-batzordeari, eta, hala badagokio, ordezkari sindikalari eta interesatuari jakinarazi eta entzun egingo zaie, 72 orduko gehieneko epean interesatuak espresuki aurkakoa adierazten badu salbu.

Hutsegite arinen ondoriozko zigorrak ezartzeko, ez da beharrezkoa izango alde aurretik espedientea tramitatzea, hutsegileari entzuteko tramitea salbu.

c) Hutsegite arinak hamar egunetan indargabetuko dira, larriak hogeitun egunetan eta oso larriak hirurogei egunetan, enpresak hutsegitearen berri duenetik hasita, eta, nolahi ere, huts egiten denetik sei hilabetetan. Aipatutako epeak eten egingo dira, hala badagokio, tramitatutako espedientearen beraren edozein egintzaren ondorioz, baldin eta haren iraupenak, multzoan, sei hilabeteko epea gainditzen ez badu, espedientea jaso duen Interesdunaren errurik gabe.

Lehenengo xedapen gehigarria. Gatazkak konpontzeko prozedura. Preco II.

Bi alderdiek onartzen dute Gatazka Kolektiboak Konpontzeko Borondatezko Prozedurei buruzko Konfederazioen arteko Akordioa (Preco II), 1990-07-03ko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian* argitaratua (131. zk.). Akordio hori hitzarmen honen esparruan aplikatuko da, hitzarmenaren klausulak aplikatzearen ziozko gatazka kolektiboak konpontzeko dagokionez.

Era berean, bi alderdiek hitz ematen dute banakako gatazkak konpontzeko borondatezko prozedura erabiliko dutela ituntzen diren gaitan, alderdietako batek bere esku-hartzea eskatzen duenean.

Bigarren xedapen gehigarria. Lansariak igotzea.

Alderdiek ordainsari-igoera hauek adostu dituzte hitzarmen kolektibo hau indarrean dagoen bitartean:

- a) 2023. urtean, hitzarmeneko taulek % 3,4ko igoera izango dute.
- b) 2024. urtean, hitzarmeneko taulek % 3,1eko igoera izango dute.
- c) 2025. urtean, hitzarmeneko taulek Euskal Autonomia Erkidegoko aurreko urteko KPIa gehi % 2ko igoera izango dute. KPIari doakion igoera 2025eko urtarrilean aplikatuko da, eta % 2 erakundeek 2025eko tarifa eguneratzen dutenean eta, nolahi ere, 2025eko abenduaren 31n.

Ordainsari-igoerak nominako kontzeptu guztiei aplikatuko zaizkie.

Hirugarren xedapen gehigarria. Geroan egindako ekarpenak.

Hitzarmen hau indarrean dagoen urteetan, 2016ko abenduaren 31n zeuden ekarpenen ehunekoei eutsiko zaie, bai enpresarenei, bai langileenei.

Laugarren xedapen gehigarria. Eginkizunak eguneratzea.

2025eko abenduaren 31 baino lehen, lanbide-profilen eginkizunak eta erantzukizunak eguneratuko dira.

Horretarako, prozedura hau ezarriko da:

- Enpresako zuzendaritzak lan-agiri bat prestatuko du 2025eko martxoaren 31 baino lehen.
- Lan-batzorde parekide batek (3 kide alderdi bakoitzeko) lan-dokumentua aztertuko du eta egoki irizitako ekarpenak proposatuko ditu.

- Perturbación del servicio.
- Daños producidos a la empresa o a las personas usuarias.
- Reincidencia.
- Grado de participación.

Las sanciones por faltas graves y muy graves requerirán la tramitación de expediente contradictorio, cuya iniciación se comunicará al Comité de Empresa y, en su caso, a la Delegada Sindical y a la persona interesada, dándose audiencia a esta persona y siendo oídos aquéllos en el mismo, salvo petición expresa de la persona interesada en sentido contrario, en un plazo máximo de 72 horas.

Para la imposición de sanciones por faltas leves, no será preceptiva la previa instrucción de expediente, salvo el trámite de audiencia a la persona interesada.

c) Las faltas leves prescribirán a los diez días, las graves a los veinte días y las muy graves a los sesenta días, a partir de que la empresa tenga conocimiento de su comisión y, en todo caso, a los seis meses de haberse cometido. Dichos plazos quedarán interrumpidos por cualquier acto propio del expediente instruido en su caso, siempre que la duración de éste, en su conjunto no supere el plazo de seis meses sin mediar culpa de la persona interesada.

Disposición adicional primera. Procedimiento de resolución de conflictos. Preco II.

Ambas partes asumen el Acuerdo Interconfederal sobre Procedimientos Voluntarios de Resolución de Conflictos Colectivos (Preco II) publicado en el *Boletín Oficial del País Vasco* número 131 de 03.07.1990, Acuerdo que será de aplicación en el ámbito del presente Convenio, referido a la resolución de los conflictos colectivos derivados de la aplicación de las cláusulas del mismo.

Así mismo, ambas partes se comprometen a utilizar el procedimiento voluntario de resolución de conflictos individuales en las materias que se pacten, cuando alguna de las partes solicite su intervención.

Disposición adicional segunda. Incrementos retributivos.

Las partes han acordado los siguientes incrementos retributivos durante la vigencia del presente Convenio Colectivo:

- a) Para el año 2023, las tablas del Convenio experimentarán un incremento del 3,4 %.
- b) Para el año 2024, las tablas del Convenio experimentarán un incremento del 3,1 %.
- c) Para el año 2025, las tablas del Convenio experimentarán un incremento equivalente al IPC de la Comunidad Autónoma del País Vasco del año anterior, más un 2 %. El incremento correspondiente al IPC se aplicará en enero de 2025, y el 2 % en cuanto las instituciones actualicen la tarifa de 2025 y, en todo caso, a 31 de diciembre de 2025.

Los incrementos retributivos se aplicarán a todos los conceptos de nómina.

Disposición adicional tercera. Aportaciones a Geroa.

Durante los años de vigencia del presente Convenio se mantendrán los porcentajes de la aportación, tanto de la empresa como de las personas trabajadoras, que existían a 31 de diciembre de 2016.

Disposición adicional cuarta. Actualización de funciones.

Antes del 31 de diciembre de 2025, se actualizarán las funciones y responsabilidades de los distintos perfiles profesionales.

Para ello, se establecerá el siguiente procedimiento:

- La dirección de la empresa elaborará un documento de trabajo antes del 31 de marzo de 2025.
- Una comisión de trabajo paritaria (3 miembros por cada parte), analizará el documento de trabajo y propondrá las aportaciones que considere oportunas.

2025eko abenduaren 31 baino lehen, enpresako zuzendaritzak eginkizunen eta erantzukizunen eguneratzea jakinaraziko dio erakundeari.

Bosgarren xedapen gehigarria. Borondatezko lekualdatzea etxebizitza zerbitzura.

«Lanpostu hutsak hornitzeari» buruzko xedapenak ezertan eragotzi gabe, begirale-kategoria duten langileak etxebizitza-zerbitzuan sartu ahal izateko, langileak berak horretarako borondatea adierazi beharko du.

Seigarren xedapen gehigarria. Hezkuntza zerbitzuaren lan-saio berriaren aplikazioa.

Hitzarmen honetako 14.4. artikuluan araututako urteko lanaldiaren aplikazio praktikoa 2025/2026 ikasturtea hasi aurretik adostuko dute zuzendaritzak eta enpresa-batzordeak.

Lehenengo xedapen iragankorra.

2025. urtean, hezkuntza-zerbitzuan lan egiten duten langileek urtarrilaren 1etik abuztuaren 31ra arte lan egingo dute, hitzarmenaren 14. artikuluan 2. paragrafoan ezarritako egutegi-arauen arabera, eta irailaren 1etik aurrera, artikuluko horretako 4. paragrafoan ezarritako lanaldiaren arabera.

Langile horiei 2025. urtean lanaldi trinkoaren araubidea aplikatzeari dagokionez, 9 eguneko lanaldi trinkoa izango dute.

Bigarren xedapen iragankorra.

2024ko abenduko nomina jaso arte, Gabonetako aparteko ordainsaria ere aintzat hartuta, ordainsariak hitzarmen kolektibo hau sinatzen den egunera arte bezala ordainduko dira.

Azken xedapena.

Hitzarmen hau sinatu aurretik egon litezkeen akordio guztiak indargabetuta geratuko dira, baldin eta akordio honetan itundu-takoaren aurkakoak badira.

I. ERANSKINA

ASPACEREN EGUNEKO ZENTROAN LANPOSTU HUTSAK HORNITZEKO BARNE ARAUAK

I. Sarrera.

Honako agiri honen xedea Aspaceren Eguneko Zentroko lanpostu hutsak hornitzeko edo betetzeko prozedurak arautzea.

Hitzarmen kolektibo hau sinatzen denean hasiko da indarrean haren aplikazioa.

Barne- eta kanpo-sustapeneko prozesuak arautu dira, eta erregulazioaren esparru juridiko gisa Aspaceren Eguneko Zentroko hitzarmen kolektiboa eta Langileen Estatutua hartu dira kontuan. Horren haritik, araudi honen helburua da mugikortasun- eta lekualdatze-prozesuak berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioen mende egotea, hori guztia Aspaceren eguneko zentroetako plantilla osatzen duten lanpostuen berezitasunak eta zerbitzuen antolamendua ahaztu gabe.

II. Aplikazio-eremua.

Arau horiek Eguneko Zentroko plazak betetzeko prozesu guztiari aplikatuko zaizkie, bai mugikortasuna erabiliz, bai barne- edo kanpo-sustapena erabiliz.

Testu honetan ez dira arautzen lanpostua gordetzeko eskubidea duten langileen ordezpenak edo lanpostu hutsak aldi baterako betetzea, baldin eta lanpostu horiek behin betiko betetzeko, hemen adierazitako prozesuak bete behar badira.

Antes del 31 de diciembre de 2025, la dirección de la empresa comunicará a la organización la actualización de funciones y responsabilidades.

Disposición adicional quinta. Traspaso voluntario al servicio de vivienda.

Sin perjuicio de las disposiciones sobre «Cobertura de vacantes», las personas trabajadoras con categoría de Monitor sólo podrán acceder al servicio de vivienda si la propia persona trabajadora manifiesta su voluntad en tal sentido.

Disposición adicional sexta. Aplicación nueva jornada del servicio educativo.

La aplicación práctica de la jornada anual regulada en el artículo 14,4 del presente Convenio será consensuada entre la dirección y el Comité de Empresa antes del inicio del curso 2025/2026.

Disposición transitoria primera.

Durante el año 2025, el personal que trabaja en el servicio educativo prestará servicios, desde el 1 de enero hasta el 31 de agosto, conforme a las reglas de calendario establecidas en el apartado 2 del artículo 14 del Convenio y, a partir del 1 de septiembre, conforme a la jornada establecida en el apartado 4 del citado artículo.

Respecto de la aplicación del régimen de jornada intensiva para dicho personal durante el año 2025, disfrutará de 9 días de jornada intensiva.

Disposición transitoria segunda.

Hasta la nómina del mes de diciembre de 2024, incluida la Paga Extraordinaria de Navidad, el abono de las retribuciones se seguirá haciendo como hasta la fecha de suscripción del presente Convenio Colectivo.

Disposición final.

Quedan derogados todos los acuerdos que con anterioridad a la firma del presente Convenio pudieran existir y que se opongan a lo pactado en el presente Acuerdo.

ANEXO I

NORMAS INTERNAS PARA LA COBERTURA DE PLAZAS VACANTES EN CENTRO DE DÍA DE ASPACE

I. Introducción.

El objeto del presente documento es la regulación de los distintos procedimientos para la cobertura de plazas vacantes en Centro de Día de Aspace.

La aplicación del mismo entrará en vigor desde la firma del presente Convenio Colectivo.

Se regulan los procesos de promoción interna y externa, teniendo presente como marco jurídico de la regulación tanto el Convenio Colectivo de Centro de Día de Aspace como el Estatuto de los Trabajadores. En este sentido, esta regulación pretende que los procesos de movilidad y traslados estén sometidos a los principios de igualdad, mérito y capacidad, y todo ello sin olvidar las peculiaridades de los diferentes puestos de trabajo que conforman la plantilla de Centro de Día de Aspace y la organización de los diferentes servicios.

II. Ámbito de aplicación.

Estas normas serán aplicables a todos los procesos dirigidos a la cobertura de plazas en Centro de Día, bien por movilidad bien por promoción interna o externa.

No son objeto de regulación en este texto las sustituciones de personal con derecho a reserva del puesto de trabajo o la cobertura temporal de vacantes que hayan de ser sometidas, para su cobertura definitiva, a los procesos aquí señalados.

III. Lanpostu hutsak hornitzeko prozedura.

1) Lanposturen bat argitaratzen denean, Eguneko Zentroko batzordeari edo enpresa-batzorde biei jakinaraziko zaizkie lanpostuari buruzko datuak.

2) Edozein motatako lanpostu hutsetan, lanpostu hutsaren barne-deialdia egingo da lehenik, eta Eguneko Zentroko langile finkoek betetzen ez dutenean soilik argitaratuko da Eguneko Zentroko behin-behineko langileek eta Etxebizitzako langile finkoek heldu ahalko dioten deialdia. Bigarren deialdi horretan ere plaza beteko ez balitz, kanpoko deialdia egingo litzateke, eta deialdi horretan parte hartuko lukete bai Etxebizitzako behin-behineko langileek, bai Aspacetik kanpokoek, baldin eta deialdiaren eskaintzaren berri izan eta deialdian aurkeztea erabakitzen badute.

3) Hutsik dagoen lanposturen bat argitaratzen den bakoitzean, hautagaien balorazio-batzordea eratuko da. Honako hauek osatuko dute batzorde hori: zuzendaritza nagusiak (kalitate-botoarekin, gainerakoek berdinketa gertatuz gero), dagokion zerbitzu-zuzendaritzak eta/edo Eguneko Zentroko zerbitzuburuak, egoitzako zerbitzuburuak eta giza baliabideen arduradunak.

Prozeduraren edozein unetan, kanpoko aholkularitza eskatu ahal izango du batzordeak, beharrezkotzat jotzen badu.

1. Barne-deialdia.

Arreta zuzeneko plazak (begiralea, fisioterapeutak, hizkuntza-espezialistak, etab.) eguneko zentroko zerbitzuetan.

Eguneko Zentroko langile guztiek parte hartzea izango dute deialdian, baldin eta kontratu finkoa badute eta eskaintzen den lanpostuaren arabera beharrezkoak diren titulazio-baldintzak betetzen badituzte. Baldintza horiek deialdi bakoitzean jaso behar dira.

Gutxieneko lanbide-profilari dagokionez, hau eskatuko da:

a) Lanbide-gaitasuna: Lanpostu zehatzetarako eskatzen diren titulazio espezifikoei kalterik egin gabe, eskatzen den gutxieneko titulazioa LH2, goi-mailako prestakuntza-modulua edo baliokidea izango da.

b) Lanbide-esperientzia: bete nahi den kategoria bereko lanpostu batean metatutako denbora neurtuko da, eta gutxienez plaza argitaratu aurreko urte eta erdikoa izan behar da.

Gainerako kasuetan, enpresa-hitzarmenean eta Langileen Estatutuan xedatutakoari jarraituko zaio.

2. Eguneko zentro bateko lanpostu finkoari heltzeko deialdia.

Arreta zuzeneko plazak (begiralea, fisioterapeutak, hizkuntza-espezialistak, etab.) eguneko zentroko zerbitzuetan.

Lanpostua barne-deialdi bidez ezin bada bete, Eguneko Zentroko behin-behineko langileek eta Etxebizitzako langile finkoek aukera izango dute deialdi baten bidez beteko da.

Eskatzen den gutxieneko lanbide-profilari dagokionez (lanpostu zehatzetarako eskatzen diren berariazko titulazioak ezertan eragotzi gabe), honako hau izango da:

a) Lanbide-gaitasuna: LH2, goi-mailako prestakuntza-modulua edo baliokidea izango da.

b) Lanbide-esperientzia: bete nahi den kategoria bereko lanpostu batean metatutako denbora neurtuko da, eta gutxienez plaza argitaratu aurreko urte eta erdikoa izan behar da.

c) Langilearen gaitasunak: erabiltzaileekiko enpatia, gainerako langileekiko tratu-erraztasuna eta taldean lan egiteko gaitasuna.

3. Kanpo-deialdia.

Arreta zuzeneko plazak (begiralea, fisioterapeutak, hizkuntza-espezialistak, etab.) eguneko zentroko zerbitzuetan.

III. Procedimiento de cobertura de vacantes.

1) Previa publicación de alguna plaza, se comunicará al Comité de Centro de Día o a ambos Comités de Empresa los datos correspondientes a la misma.

2) Ante cualquier tipo de vacante, ésta se propondrá primero internamente, y sólo cuando ésta no se cubriera por personal fijo de Centro de Día se publicará una convocatoria a la que tendrán acceso el personal eventual de Centro de Día y el personal fijo de Vivienda. En el caso de que no se cubriera la plaza en esta segunda convocatoria se procedería a realizar una convocatoria externa, en el que participarían tanto personal eventual de Vivienda como personas ajenas a Aspace, que conocida la oferta de la convocatoria decidan presentarse a la misma.

3) En cada publicación de plaza vacante se configurará una comisión de valoración de las candidaturas formado por: dirección general (con voto de calidad en caso de un empate del resto), dirección de servicio correspondiente, y/o jefatura de servicio del centro de día, jefatura de servicio de la residencia y la persona responsable de recursos humanos.

La Comisión podrá solicitar en cualquier momento del procedimiento asesoría externa si lo considerase necesario.

1. Convocatoria interna.

Plazas de atención directa (monitor, fisioterapeutas, especialistas del lenguaje, etc.) en servicios de centro de día.

Podrán acceder a la convocatoria todo el personal de Centro de Día que tenga contrato fijo y reúna las condiciones de titulación necesarias en función del puesto que se oferta, condiciones que será necesario incorporar en cada convocatoria.

En cuanto al perfil profesional mínimo exigido será el siguiente:

a) Capacidad profesional: Sin perjuicio de las titulaciones específicas que se requieran para puestos concretos, la titulación mínima exigida será de FP2, módulo de formación de grado superior o equivalente.

b) Experiencia profesional: se medirá el tiempo acumulado en un puesto de la misma categoría a la que se opta, siendo el mínimo de un año y medio inmediatamente anterior a la publicación de la plaza.

En el resto de los supuestos se estará a lo dispuesto en el convenio de empresa y el Estatuto de los Trabajadores.

2. Convocatoria de acceso a plaza fija en centro de día.

Plazas de atención directa (monitor, fisioterapeutas, especialistas del lenguaje, etc.) en servicios de centro de día.

Cuando la plaza no pueda ser cubierta mediante convocatoria interna se procederá a cubrirla mediante una convocatoria a la que tendrán acceso el personal eventual de Centro de Día y el personal fijo de Vivienda.

En cuanto al perfil profesional mínimo exigido (sin perjuicio de titulaciones específicas que se requieran para puestos concretos), será el siguiente:

a) Capacidad profesional: FP2, módulo de formación de grado superior o equivalente.

b) Experiencia profesional: se medirá el tiempo acumulado en un puesto de la misma categoría a la que se opta, siendo el mínimo de un año y medio inmediatamente anterior a la publicación de la plaza.

c) Capacidades personales: empatía con las personas usuarias, facilidad de trato con el resto de personal y capacidad de trabajo en equipo.

3. Convocatoria externa.

Plazas de atención directa (monitor, fisioterapeutas, especialistas del lenguaje, etc.) en servicios de centro de día.

Lanpostua aurreko prozeduretako baten bidez ezin bada bete, kanpoko deialdi baten bidez beteko da.

Etxebizitzako behin-behineko langileek eta Aspacetik kanpoko langileek heldu ahalko diote deialdiari.

a) Lanbide-gaitasuna: LH2, goi-mailako prestakuntza-modulua edo baliokidea izango da.

b) Lanbide-esperientzia: bete nahi den kategoria bereko lanpostu batean metatutako denbora neurtuko da, eta gutxienez plaza argitaratu aurreko urte eta erdikoa izan beharko da.

c) Langilearen gaitasunak: erabiltzaileekiko enpatia, gainerako langileekiko tratu-erraztasuna eta taldean lan egiteko gaitasuna.

IV. Deialdia argitaratzea.

a) Deialdiaren argitalpenean honako hauek jaso beharko dira:

– Zer lanpostu bete behar den.

– Hutsik dauden plazen kopurua.

– Lantokia.

– Gaitasun profesionalei, pertsonalei eta lanbide-esperientziari buruzko betekizun espezifikoak, halakorik balego.

– Eskabideak jasotzeko tokia.

– Eskabideak aurkezteko epea.

– Balorazio Batzordearen osaera.

– Merezimenduen baremoa, egin beharreko proba espezifikoak adierazita, halakorik balego.

b) Prozeduran parte hartzeko eskabidea horretarako ezarritako ereduaren arabera osatu beharko da.

c) Eskabidearekin batera, alegatzen diren merezimenduak eta titulazioak egiaztatzen dituzten agiri guztiak aurkeztu beharko dira, betiere dokumentazio hori espediente pertsonalean ez badago.

V. Merezimenduak eta ebaluazio-irizpideak.

Puntuazio-baremoak, hala badagokio, honako hauek izango dira:

a) Lanpostuan izandako jardunaren balorazioa eta lanbide-esperientzia: gehienez ere, 40 puntu emango dira.

Egindako lana ebaluatzeko egokien jotzen den sistemaren arabera egingo da.

Esperientzia profesionalean, erakundearen barruan eta erakundetik kanpo bete nahi den kategoria bereko lanpostu batean metatutako denbora neurtuko da; gehienez ere, 20 puntu emango dira, 0,3 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko.

(Galdetegi itxi bat prestatu behar da, izangaiak lan egiten duen zentroko arduradunak bete dezan, honako irizpide hauek baloratuz eta puntuatuz: puntualtasuna, erabiltzaileekiko tratua, gainerako langileekiko harremana, bitarteko mekanikoen erabileraren, laneko segurtasun eta osasuneko araeekiko errespetua, enpatia, ekimena, Eguneko Zentroan eta egoitzan lan egin duen edo ez...).

b) Hautaprobak eta/edo elkarrizketa pertsonala: idatzizko proba, hautagaia lanpostuan probatzea egun batzuetan, lanposturako gaitasuna duen ala ez zehazten duten proba medikoak, hala eskatzen bada, elkarrizketa pertsonalak...

Lanpostuaren profilarekiko egokitasun teknikoaren eta pertsonalaren maila baloratzeko jarrerak eta gaitasunak aztertzea da kontua. Gehienez ere, 35 puntu emango dira.

Cuando la plaza no pueda ser cubierta mediante ninguno de los procedimientos anteriores se procederá a cubrirla mediante una convocatoria externa.

Tendrán acceso a la misma el personal eventual de Vivienda y el personal ajeno a Aspace.

a) Capacidad profesional: FP2, módulo de formación de grado superior o equivalente.

b) Experiencia profesional: se medirá el tiempo acumulado en un puesto de la misma categoría a la que se opta, siendo el mínimo de un año y medio inmediatamente anterior a la publicación de la plaza.

c) Capacidades personales: empatía con las personas usuarias, facilidad de trato con el resto del personal y capacidad de trabajo en equipo.

IV. Publicación de la convocatoria.

a) En la correspondiente publicación de la convocatoria, deberá constar:

– Puesto de que se trata.

– Número de plazas vacantes.

– Centro de trabajo correspondiente.

– Requisitos específicos de capacidades profesionales, personales y de experiencia profesional para su desempeño si los hubiere.

– Lugar de recepción de las solicitudes.

– Plazo de presentación de las solicitudes.

– Composición de la Comisión de Valoración.

– Baremo de méritos con expresión de las pruebas específicas a realizar, si las hubiera.

b) La solicitud para formar parte del correspondiente proceso se efectuará en el modelo establecido al efecto.

c) La solicitud habrá de venir acompañada de toda aquella documentación justificativa de méritos y titulaciones que se aleguen, siempre y cuando esta documentación no se encuentre ya en el expediente personal.

V. Méritos y criterios de evaluación.

Los baremos de puntuación, en su caso, serán los siguientes:

a) Valoración del desempeño del puesto y experiencia profesional: Se valorará hasta un máximo de 40 puntos.

Se hará conforme al sistema que se considere más idóneo para la evaluación del trabajo desarrollado.

En la experiencia profesional se medirá el tiempo acumulado en un puesto de la misma categoría a la que se opta dentro de la organización y fuera de la organización, sumando un máximo de 20 puntos a razón de 0,3 puntos por mes trabajado.

(Se trata de elaborar un cuestionario cerrado que rellena la persona responsable del centro donde trabaja la persona candidata valorando y puntuando criterios como: puntualidad, trato con las personas usuarias, relación con el resto del personal, manejo de medios mecánicos, respeto a las normas de seguridad y salud laboral, empatía, iniciativa, si ha trabajado o no en Centro de Día y Residencia...).

b) Pruebas y/o entrevista personal: Prueba por escrito, probar a la persona candidata en el puesto durante unos días, pruebas médicas que determinen la aptitud o no para el puesto en el caso de que se requieran, entrevistas personales, etc.

Se trata de analizar las diversas actitudes y aptitudes para una valoración del grado de adecuación técnico-humana al perfil del puesto. Hasta 35 puntos.

c) Prestakuntza: kanpoko prestakuntza eta lanpostuaren eginkizunekin zerikusia duten edo lanpostuan hobeto jarduteko balio duten titulazio akademikoak baloratuko dira. Guztira, 25 puntu emango dira.

- Titulazio akademikoak: gehienez ere, 12 puntu emango dira.
- Kanpoko prestakuntza: gehienez ere, 5 puntu emango dira.
- Barruko prestakuntza: gehienez ere, 5 puntu emango dira.
- Euskara: gehienez ere, 3 puntu emango dira.

Hautagaien arteko berdinketa gertatuz gero, baloratutako merezimenduen lehentasuna adierazitakoa izango da, deialdian berariaz aldaketarik egin ezean.

c) Formación: Se valorará la formación externa y las titulaciones académicas relacionadas con las funciones del puesto o que redunden en un mejor desempeño del mismo. Un total de 25 puntos.

- Titulaciones académicas: hasta 12 puntos.
- Formación externa: hasta 5 puntos.
- Formación interna: hasta 5 puntos.
- Euskera: hasta 3 puntos.

En caso de empate entre aspirantes la prioridad de los méritos valorados será la expuesta, salvo alteración expresa en la convocatoria.

II. ERANSKINA / ANEXO II
2025. SOLDATA TAULA / TABLA SALARIAL 2025

Maila Nivel	Kategoria Categoría	1307	1566	1705	Hirurteko taula Trienios tabla
A	Zuzendari nagusia Director General			6.803,61	75,02
D	Zerbitzuburuak / Finantzak / Giza Baliabideak Jefes Servicio / Financiero / RRHH			5.648,34	75,02
H	Medikua Médico			5.186,85	75,02
M	Psikologoa Psicóloga	3.029,52		3.298,44	60,73
M	Gizarte-langilea Trabajadora social			3.298,44	60,73
M	Zentroko Arduraduna Responsable de Centro		3.029,52		60,73
N	Fisioterapeuta / Terapeuta Okupazionala Fisioterapeuta / Terapeuta Ocupacional	2.740,12			60,73
N	Fisioterapeuta / EUD / Terapeuta Okupazionala Fisioterapeuta / D.U.E / Terapeuta Ocupacional		2.740,12		60,73
P	Logopeda Logopeda		2.447,20		60,73
P	Irakasle / Logopeda Maestro / Logopeda	2.447,20			60,73
Q	Monitore Monitor		2.154,36		60,73
Q	Monitore Monitor	2.154,36			54,49
R	Ofizial administraria Oficial Administrativo			2.345,70	54,49
S	Garraioko Laguntzailea Auxiliar Transporte		1.743,25		43,76
T	Telefonista Telefonista		1.209,28		41,47

2025ERAKO ORDUKO PREZIOEN TAULA - LANGILE FINKOAK ETA ALDI BATERAKOAK / TABLA PRECIOS HORA 2025 PERSONAL - FIJO Y EVENTUAL

Maila Nivel	1.307 ordu 1.307 horas	1.566 ordu 1.566 horas	1.705 ordu 1.705 horas	Lan. Fink./Ald. Baterakoak €/h P. Fijo/Eventual €/h
N				24,50
P				21,86
Q				19,25

Maila Nivel	1.307 ordu 1.307 horas	1.566 ordu 1.566 horas	1.705 ordu 1.705 horas	Lan. Fink./Ald. Baterakoak €/h P. Fijo/Eventual €/h
R				19,25
S				14,03
T				15,58

III. ERANSKINA

ARRETA GOIZTIARRA

* Lanaldia:

Arreta Goiztiarreko Zerbitzuan, Zuzeneko Arretako langileen lanaldia egunean 8 ordukoa izango da, eta astean 40 ordukoa 190 egunetan, eta bazkalordua lan egindako denboratzat zenbatuko da. Arau horrek ez du bazkalorduan funtzionamenduaren antolaketa berririk ekarriko. Orduategia 8:00etatik 17:00ak artekoa izango da.

Zuzeneko Arretako langile bakoitzak 46 ordu izango ditu, eta honako zeregin hauetan emango ditu: familien ibilbidea antolatzeta eta planifikatzea, prestakuntza, Gipuzkoako Foru Aldundian aurkezteko txostenak, e-postak eta whatsapp-ak erantzutea (Neuropediatria, Gizarte Zerbitzuak, Ospitaleak, Eskolak, Harrera Zentroak...), Mugimendu Orokorren Bideoen Análisis, Bilerak Ikerketa Taldearekin, Jardunbide Egokien Inplementazioa...

Langile bakoitzaren guztizko zenbaketa urtean 1.566 ordukoa izango da, 190 egunetan.

* Udako oporraldia:

Zerbitzua itxita egongo da Aspace Gipuzkoako Eguneko Zentroaren urteko egutegiaren arabera.

Uztaileko lehen hamabostaldian Zuzeneko Arretako profesional guztiek lan egingo dute. Bigarren hamabostaldian, urteko egutegiaren arabera, horietako bik lan egin eta zerbitzua zabalik izango dute. Langileek irailaren lehen hamabostaldian edo profesionalak aukeraturata (uztailean izan ezik) hartuko dituzte lan egindako egun horien trukekoak, zerbitzuburuari alde zuzenean jakinarazita eta batera antolatuta.

Uztailean lan egindako gainerako egunak urtean zehar hartu ahal izango dituzte langileek, zerbitzuburuari jakinarazi eta antolatuta ondoren.

* Aste Santua eta Gabonak:

Aste Santuan eta Gabonetan, Arreta Goiztiarreko langileen oporraldia honako hau izango da:

– Aste Santuan: Ostegun Santuaren aurreko ostiraletik Pazko Astea amaitu arte.

– Gabonetan: Abenduaren 22tik Errege egunaren ondorengo egun baliodunera arte.

IV. ERANSKINA

LANALDIA GAINDITZEN DUTEN ORDU-KONPENSAZIOEI
BURUZKO AKORDIOA

Akordioaren helburua honako hau da: lan-hitzarmenaren 14. artikuluan ezarritako lanaldia gainditzen duten egoeretako ordutegi-konpentsazioa arautzea, baldin eta jarduerak ikasgelako edo zentroko jarduera osagarriekin edo gerora sortutako inguruabarrekin (garraioa, larrialdia, osasuna...) lotuta badaude.

Akordio hori profesional finkoei aplikatuko zaie, beren arduraldi edo prestasun bereziagatik berariazko osagarria eskatzen duten lanpostuei izan ezik.

Ohiko lan-ordutegitik kanpo sortutako inguruabarrengatik orduak konpentsatu behar direnean, lanaldia gainditu den ordu kopuru berdinez konpentsatuko da.

ANEXO III

ATENCIÓN TEMPRANA

* Jornada de trabajo:

En el servicio de Atención Temprana la jornada del personal de Atención Directa será de 8h diarias, 40 semanales en 190 días, computando la hora de comida como trabajada. Dicha regla no implicará nueva organización del funcionamiento durante la comida. El horario será en el intervalo de 8:00 h a 17:00 h.

Cada trabajadora de Atención Directa tendrá 46 h que las dedicará a organización y planificación de ruta de familias, formación, informes para la Diputación Foral de Gipuzkoa, responder e-mail y whatsapps (Neuropediatria, Servicios Sociales, Hospitales, Escuelas, Centros de Acogida...), Análisis de Vídeos de Movimientos Generales, Reuniones con Equipo de Investigación, Implementación de Buenas Prácticas...

El cómputo total de cada trabajadora será de 1.566 h anuales, en 190 días.

* Vacaciones estivales:

El servicio permanecerá cerrado según el Calendario Anual del Centro de Día de Aspace Gipuzkoa.

Las primeras quincenas de julio trabajarán todas las profesionales de Atención Directa. La segunda quincena, según el calendario anual, trabajarán dos de ellas manteniendo el Servicio abierto. Éstas, disfrutarán de estos días trabajados en la primera quincena de septiembre o a elección por el profesional (excepto julio) con previa comunicación y organización con el Jefe de Servicio.

El resto de días trabajados en julio, las trabajadoras podrán disfrutarlo a lo largo del año previa comunicación y organización con el jefe de Servicio.

* Semana Santa y Navidad:

El período vacacional del personal de Atención Temprana en Semana Santa y Navidad será el siguiente:

– Semana Santa: Desde el viernes previo al Jueves Santo hasta finalizar la Semana de Pascua.

– Navidad: Desde el 22 de diciembre hasta el día hábil de después de Reyes.

ANEXO IV

ACUERDO DE COMPENSACIONES HORARIAS QUE SUPONGAN UN
EXCESO DE LA JORNADA LABORAL

El acuerdo tiene por finalidad regular la compensación horaria de aquellas situaciones en las que se supere la jornada laboral establecida en el art. 14 del convenio laboral, siempre que las actividades estén relacionadas con las actividades complementarias de aula o centro, o aquellas circunstancias sobrevenidas (transporte, urgencia, sanitaria...).

Este acuerdo se aplicará a aquellos profesionales fijos, excepto a aquellos cuyo puesto conlleve un complemento específico por su especial dedicación o disponibilidad.

Cuando se trate de compensar horas por circunstancias sobrevenidas fuera del horario laboral ordinario, se compensará en el equivalente al mismo número de horas en que la jornada laboral se haya visto excedida.

Aparteko jarduera larunbatean egiten bada, lanegun batez konpentsatuko da, jarduera 4 orduetik gorakoa bada, eta jarduerak irauten duen orduen kopuru berdina, 4 orduetik beherakoa bada.

Aparteko jarduera igandean edo jaiegunean egiten bada, aparteko jarduerak irauten duen denboraren bikoitza emango da konpentsatzeko.

Jarduera lanegunetan eta gauetz egiten bada, konpentsazioa 2 laneguneko izango da.

Prozedura:

Zentroko/gelako arduradunak, zerbitziburuaren baimenarekin, ezohiko ordutegian garatu beharreko jardueraren deskribapena aurkeztuko dio Giza Baliabideen sailari, haren beharra justifikatuz eta jarduera horretan parte hartzen duten profesionalak eta profesional bakoitzak aurreikusitako gehiegiako orduak adieraziz.

Baimendutako jarduera egin ondoren, jarduera horretan parte hartu duen profesional bakoitzak dagokion konpentsazioa eskatu ahal du, langilearen atariaren bidez.

Profesionalak langilearen atariaren bidez eskatuko du konpentsazioa, aurreikusitako eguna baino 15 egun baliodun lehenago gutxienez, eta, oro har, egutegi-urteko konpentsazioa baliatu ahal izango du. Jarduera urteko azken hiruhilekoan egiten bada, hurrengo urteko lehen hiruhilekoan hartu ahal izango da konpentsazioa.

Kompentsazio-eskaera ahalik eta azkarren ebatziko dute Giza Baliabideetako sailekoek, ahal dela, 5 eguneko epearen barruan.

Irizpide orokor gisa, zentroko/gelako zuzeneko arretako profesionalen % 40k ezin izango du konpentsazioa aldi berean baliatu, eta lizentziei emango zaie lehentasuna.

V. ERANSKINA

ADMINISTRAZIOKO LANGILEEN ORDUTEGI-KOMPENSATIOARI BURUZKO AKORDIOA, LAN-EGUTEGIAN JASOTA EZ DAUDEN JAIEGUNETAN LAN EGIN BEHAR IZATEAGATIK

Akordio honen helburua administrazioko langileen ordutegi-kompentsazioa arautzea da, baldin eta, egoera bereziak eta zuzendaritzarekin adostutakoak direla-eta, lan-egutegian lanegun-tzat jotzen ez diren egunetan lan egin behar badute, abuztuan izan ezik.

Aparteko jarduera astelehenetik larunbatera egiten bada, lanegun batez konpentsatuko da, jarduera 4 orduetik gorakoa bada, eta jarduerak irauten duen orduen kopuru berdina, 4 orduetik beherakoa bada. Dena dela, ordutegia malgua izan daiteke.

Aparteko jarduera igandean edo jaiegunean egiten bada, aparteko jarduerak irauten duen denboraren bikoitza emango da konpentsatzeko.

Jarduera astelehenetik larunbatera bitartean egiten bada, baina Aste Santuko, Gabonetako edo zubietako oporraldian, jarduera lanaldi osokoa bada, egun eta erdiz konpentsatuko da.

Lanera joaten den egun zehatz horietan, jarduera jakinak egiten dira, eta, beraz, ez da bestelako arretarik egongo (familiak, langileak...).

Urte bakoitzaren amaieran, arau orokor gisa, Giza Baliabideen arduradunarekin adostuko dira hurrengo urtean lan egin beharreko egunak.

VI. ERANSKINA

ASPACEREN ZERBITZU BEREZIEEN PROGRAMARI BURUZKO AKORDIOA

Zerbitzu berezien programak erabiltzaileen edo haien familien beharrak betetzen ditu eguneko zentroa itxita dagoen aldietan.

En el caso de que la actividad extraordinaria se desarrolle en sábado, se compensará con un día laborable cuando la actividad exceda de 4 h y con el mismo número de horas que dure la actividad si es inferior a 4 h.

En el caso de que la actividad extraordinaria se desarrolle en domingo o festivo se compensará con el doble de tiempo que dure la actividad extraordinaria.

En el caso de que la actividad se desarrolle en días laborables con una noche, la compensación será de 2 días laborables.

Procedimiento:

El/la responsable de centro/aula con la autorización del Jefe de Servicio presentará a RRHH la descripción de la actividad a desarrollar en horario extraordinario, justificando su necesidad y señalando los/las profesionales que participan en dicha actividad, así como las horas previstas de exceso por parte de cada uno/a de los/las profesionales.

Una vez realizada la actividad autorizada, cada profesional que haya participado en la misma podrá solicitar la compensación correspondiente a través del Portal del empleado/a.

El/la profesional solicitará la compensación a través del portal del empleado/a con una antelación mínima a 15 días hábiles a la fecha prevista, pudiendo disfrutar, por regla general, de dicha compensación del año natural. En el caso de que la actividad se lleve a cabo en el último trimestre del año se podrá realizar la compensación dentro del primer trimestre del año siguiente.

La solicitud de compensación se resolverá por parte de RRHH a la mayor brevedad posible, preferentemente en el plazo de 5 días.

Como criterio general, no podrán acceder a disfrutar la compensación a la vez más el 40 % de los/las profesionales de atención directa del centro/aula, priorizándose las licencias.

ANEXO V

ACUERDO SOBRE COMPENSACIÓN HORARIA DE PERSONAL DE ADMINISTRACIÓN POR TENER QUE TRABAJAR EN DÍAS FESTIVOS NO CONTEMPLADOS EN EL CALENDARIO LABORAL

Este acuerdo tiene por finalidad regular la compensación horaria del personal de administración, que, por situaciones específicas y acordadas con Dirección, tengan que trabajar en días no contemplados como laborables en el calendario laboral, excepto agosto.

En el caso de que la actividad se desarrolle entre lunes y sábado se compensará con un día laborable cuando la actividad exceda de 4 h y con el mismo número de horas que dure la actividad si es inferior a 4 h, pudiendo ser el horario flexible.

En el caso de que la actividad se desarrolle en domingo o festivo se compensará con el doble de tiempo que dure la actividad extraordinaria.

En el caso de que la actividad se desarrolle entre lunes y sábado, pero de periodo vacacional de Semana Santa, Navidad o puentes y siempre que la actividad sea jornada completa, se compensará con día y medio.

Los días específicos que se acuda a trabajar están motivados en desarrollar una actividad concreta, por lo que no habrá ningún otro tipo de atención (familias, trabajadores...).

Al final de cada año y como regla general, se acordarán con la responsable de RRHH los días en los que sea preciso trabajar el siguiente año.

ANEXO VI

ACUERDO SOBRE EL PROGRAMA DE SERVICIOS ESPECIALES DE ASPACE

El programa de servicios especiales cubre las necesidades procedentes de los usuarios/as o de sus familias en los periodos en los que el centro de día se encuentra cerrado.

Zerbitzuak eguneko lanaldian eta urteko 213 egunetan irekita izateak ez ditu lehen aipatutako behar guztiak betetzen, eta, hortaz, urtean 120/124 egun ingurutan eskaintzen da zerbitzu berezien programa, zerbitzu horren bi arduradunen eskutik.

Zerbitzu berezien programa horren barruan, eguneko zentzoko oporraldietan, hau da, Aste Santuan eta Gabonetan, 9:00etatik 17:00etara eskaintzen da zerbitzua.

Zerbitzu berezien programa honetan garatzen den jarduera, funtsean, ludikoa eta asistentziala da; beraz, hasiera batean, jarduera hori egiteko profil egokia begiralearena dela uste da.

Erabiltzaileen edo haien familien beharrak beteko direla bermatzeko, ezinbestekoa da zerbitzu hori ematen duten profesionalak erabiltzaileak ezagut ditzaten. Hori dela eta, ezagutza horren arabera osatuko dira taldeak, profesionalak adin-tartearekin duen esperientziaren arabera, profesionalak aldi bakoi-tzean (abuztuan, Aste Santuan eta Gabonetan) eman dezakeen egonkortasun presentzialaren arabera, bai eta behar den ratioaren arabera ere.

Taldeetako kide izateko, begiraleek izango dute lehentasuna, eta, hala badagokio, kontratu mugagabea duten irakasleek. Aipatutako guztiaz gain, dena delako profesionala zerbitzua eman aurreko sei hilabeteetan modu erregularrean jardunean egon izana baloratuko da.

Zerbitzu horri hel diezaioketen behin-behineko begiraleek guxtienez 6 hilabeteeko antzinatasuna bermatu beharko dute.

Arau orokorra da profesional bakoitzak urtean gehienez 5 lanegunetan lan egitea zerbitzu horretan.

Salbuespen gisa, profesioaletako bati hurrengo asteko egunen batean lan egiteko eskatu ahal izango zaio, informazioa taldeen artean behar bezala igortzen dela bermatzeko.

Gainera, Aspaceko sail medikoak epe horretan beste profesionalen baten esku-hartzea gomendatzen duen agindurik emango balu, programan parte hartzea baloratuko litzateke.

La apertura de los diferentes servicios en jornada diurna durante 213 días anuales no cubre todas las necesidades mencionadas, existiendo aproximadamente 120/124 días al año en los que se ofrece un programa de servicios especiales, contando con ello con dos personas responsables de dicho servicio.

Dentro de ese programa de servicios especiales, se encuentra el servicio que se ofrece en periodos vacacionales de centro de día, es decir, semana santa y Navidad, en horario de 9:00 a 17:00 horas.

La actividad desarrollada en este programa de servicios especiales es fundamentalmente de carácter lúdico-asistencial por lo que, en principio, se estima que el perfil más adecuado para el desempeño de esta actividad es el de monitor.

Para garantizar la cobertura de necesidades de los usuarios o sus familias es imprescindible que los profesionales que presten dicho servicio conozcan a los usuarios/as, por lo que la composición de los equipos se realizará en función de dicho conocimiento, de la experiencia del profesional con la franja de edad que debe atenderse, de la estabilidad presencial que el profesional pueda aportar en cada periodo (agosto, semana santa y navidad) y, también, de la ratio que se precisa.

Para formar parte de los equipos tendrán preferencia los monitores, y en su caso los profesores con contrato indefinido. Se valorará además de todo lo mencionado, que dicho profesional haya estado en activo de modo regular durante los seis meses anteriores a prestar el servicio.

Los monitores eventuales que puedan acceder a dicho servicio deberán garantizar una antigüedad mínima de 6 meses.

La regla general es que cada profesional trabaje un máximo de 5 días laborables al año en este servicio.

De forma excepcional, a alguno de los profesionales se le podrá solicitar que trabaje algún día de la semana siguiente para garantizar un correcto traslado de la información entre los equipos.

Además, si hubiera alguna prescripción del departamento médico de Aspace que aconsejará la intervención de algún otro profesional durante este periodo, se valorará que pudieran formar parte del programa.